

Barkamena eta adiskidetzea. Familian elkar barkatzen dugu

Familia da konfiantza hartzen joateko aukera ematen digun erakunde oinarrizko eta lehena. Familian gertatzen diren maitasunezko hartu-emanen esker ikasten dugu beste batzuekin harremanean izaten. Familia, pertsonen oinarrizko beharrak asetzeari gainera, zutabea da eta bere inguruan hazten gara pertsona eta herritar bezala.

Kristauok ezagutzen dugu gure jardueraren sustatzaileak zein izan behar duen: maitasunak. Eta San Paulok (1 Kor 13, 1-7) primeran adierazten digu zer nolako maitasunez jokatu behar dugu familiako hartu-emanetan:

“Nahiz eta gizakien eta aingeruen hizkuntzez hitz egin, maitasunik ez badut, brontze soinulari eta ezkila tintinlari besterik ez naiz. Nahiz eta profezia dohaina izan, nahiz eta misterio guztiak eta munduko jakintza guztiak ezagutu eta mendiak lekuz aldatzeko adinako sinesmena izan, maitasunik ez badut, ez naiz ezer. Dudan guztia behartsuen artean banatu eta neure gorputza erretzeraino emanik ere, maitasunik ez badut, ez naiz ezer. Maitasuna eraman onekoa eta bihozbera da; ez du bekaizkeriarik ez handiusterik, ez harropuzkeriarik. Ez da lotsagabea, ez berekoia, ez haserrekorra; kaltea ez du gogoan hartzen. Ez da bidegabekeriaz pozten, baizik eta egian pozten da. Maitasunak dena barkatzen du, dena sinesten, dena itxaroten, dena ongi eramaten.” (1 Kor 13, 4-7)

Baina askotan, maitasunez bizitzeko ideal hori ez da betetzen. Eroapenik eza, harrokeria, bekaizkeria, bihotz-gogortasuna, norberekoikeria, norbere buruaren garapena..., zailtasun bihurtzen dira familia bizitzarako eta hainbat kasutan familia zauritu egiten dute odolustu arte... Horrelakoetan ez du ematen maitasuna dena barkatzeko eta ongi eramateko gauza denik. Orduan agertu beharko lukete familian barkamenak eta adiskidetzeak.

“Perdonar” hitzaren etimologiara joz gero, zera aurkituko dugu: “per” aurrizkiak “erabateko ekintza” adierazten duela eta “donar” hitzak, “oparitu, borondatez edo bihotz-zabaltasunez amore eman”. Barkatzea, beraz, erabateko bihotz-zabaltasunezko jardura da.

Gaur egun, barkamena, adeitasunezko kontua baizik ez da; deskuidurik txikienean “barkamena eskatzen da”, hau da, doministiku egitean, hitzen bat oker esatean, jendetzaren erditik pasatzeko baimena eskatzean... Baina gu beste barkamen bati buruz ari gara, kontu sakonagoari buruz, izan be, barkamena, azken batean, ausardia eta askatasunezko jardura da, iragana berregin nahi duena, iragan horretan, biziaren edo gizakiaren duintasunaren aurkako irain larriak bizikidetzatza hautsi edo larri zauritu duelako.

Elkar barkatzeak, gure iragana errutik askatzen du eta sendatu egiten gaitu. Barkamena gauzatzean hain bat une bizi daiteke eta, urratsez urrats, askatu egiten

gara epaietatik, amorrueetatik, oinazetik... eta gertatu zenak ezin dituela gure bizitza osoa eta gure harremanak baldintzatu konturatzen gara.

Gizaki bezala ikastea dagokigun irakaspenen artean, barkamena da garrantzitsueneakoa eta, aldi berean, zailenetakoa. Barkatzen ikasiz gero, errukia, apaltasuna, tolerantzia eta eroapena, errazago aterako zaizkigu.

Ez barkatzearen ondorioak, katastrofikoak dira... Gorrotoa, mendekua, axolagabekeria mesprezua... hedatzen dira bihotzetan. Jarrera horiek nagusituz, Jesusen egitasmoak –senidetasuna, familia unibertsala- ez du lekurik munduan.

Bidegabekeriaren aurrean, mendeku-gosea sortzen da askotan. Zenbat eta handiagoa izan gaitza, orduan eta erreparazio handiagoa eskatzen da. Horrela, esate baterako, Itun Zaharrak arautu egin behar izan zuen mendekuaren, “begi, begi truk” delakoaren eragina, “eragindako gaitzari” dagokionez neurritzakoa izan zedin, joera, kalte handiagoa eragitea zelako. Itun Berrian, Jesusek gizatasun handiagoko proposamena, berak gauzatu egin zuena, ikus dezakegu (Mt 5, 38-48).

Kristauoi barkatzea dagokigu, Jainkoak barkatu gintuelako lehenengo. Gainera Jesusek erakusten digunez, Jainkoaren maitasuna gure muga guztiak baino handiagoa da. Aita onaren parabolan (Lk 15, 11-32) agertzen da guzti hori:

Gainera esan zien: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: “Aita, emadazu dagokidan senipartea”. Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxira, seme gazteenak, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera alde egin zuen eta han, galdukeriak biziz, ondasun guztiak jan. Dena xahutu zuenean, gosete ikaragarria gertatu zen inguru hartan eta estu aurkitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako gizon batengana joan zen morroi, eta hark bere sailetara bidali zuen txerrizain. Txerriek jaten zuten ezkurrez asetzeko gogoa ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen. Orduan, pentsatzen jarriarik, bere baitan esan zuen: “Zenbat langile gure aitarenean nahi adina ogi eta gehiago dutela, eta ni hemen goseak hiltzen! Jaiki, aitarengana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago seme-izenik merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala”. Jaiki eta aitaren etxera abiatu zen. Oraindik urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta errukitu egin zen; eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: “Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago zure seme-izenik merezi...”. Aitak, ordea, esan zien morroiei: “Ekarri bizkor jantzirik onena eta jantziozue, ipiniozue eratzuna eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua; zeren seme hau hilda bainuen eta piztu egin zait, galdua nuen eta aurkitu egin dut”. Eta festa hasi zuten. Seme zaharrena soroan zen. Etxerakoan, hurbildu ahala, soinua eta dantzak sumatu zituen. Eta, morroi bati deiturik, zer gertatzen zen galdetu zion. Hark erantzun: “Zure anaia etorri da eta zekor gizendua hiltzeko agindu du zuen aitak, semea onik bereganatu duelako”. Biziki haserretu zen anaia eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: “Hainbeste urte da zure agindu bat ere sekula huts egin gabe zerbitzatzen zaitudala, eta ez didazu egundaino antxume bat ere eman, lagunekin festa egiteko; eta, horko zure sema hori, zure ondasunak

emagalduekin jan dituen hori, etorri dela eta, zekor gizendua hil duzu". Aitak erantzun zion: "Seme, zu beti nirekin zaude, eta nire guztia zeurea duzu! Baina egoki zen poztu eta festa egitea, zure anaia hau hilda baikenuen eta piztu egin zaigu, galdua genuen eta aurkitu egin dugu!"».

Jesusek beti barkatu egin behar dugula diosku kristauoi (Mt 18, 21-22). Guri ezinezkoa iruditzen zaigu, baina Jesusek eskatu egiten digu, Jainkoak horretarako gauza egin gaituelako. Jainkoarentzat ez dago ezinezkorik.

